

Sch-slap

schadografia: Suitzan egon zen bitartean, 1918an, Christian Schad-ek kamerarik gabeko fotografiak egiteko probak egin zituen dadaisten fotoesperimentuekin jarraituz. (Schad-ekin zerikusirik izan gabe, Man Ray-k antzeko esperimentuak egin zituen 1922an, eta rayograma garatu zuen). Asmakizun honek, Zuricheko dadaistek *schadografia* deitu zutena, objektua zuzenean argiarentzako sentikorra den paper baten gainean jarri eta, inolako kamerarik gabe, argia sartzen utziz konposizio fototeknikoak egiteko modua ematen du. Objektuak ingerada zirriborrotsu bat uzten du eta, konposizio baten arabera ordenatutako materialen inpresio moduan, argazki-paperearen gainean kollage inmaterial bat sortzen du.

schimmelobjekt (objektu lizunduna): Arte objektualaren barruan eta bere "errepintatuak" egin ondoren, Diter Rot artistak *schimmelobjekt* deitutakoak egin zituen hirurogeiko urteetan, hau da, kristal baten barruan substantzia organikoak jarri isolatuta eta lizun-bakterioekin insuflatu egindako objektuak. Masa organiko elikagarria geratzen den bitartean aurrera jarraitzen du lizundura-prozesuak modu konfiguratzailan eta etengabeko aldaketan. Prozesu suntsitzaile hori bukatzen denean, koadroa ere kontsumitu egiten da bere kabuz, eta erlikia bat bakarrik geratzen da, usteltze-prozesu horren erreferentzia bat bakarrik, hau da, ikusteko modu errazago edo nekezagoan gertatzen den bizitza natural oren izaera prozesualaren erakuskari gisa geratzen da, modu kontzientean atzematen ez delarik. *Schimmelobjekt* hau errealtatearen igarotza natural horren ikuspen prototipiko bat bezala ulertu behar da.

section d'or: (ikus Urrezko sekzioa)

semantika: Ikur semiotikoen arteko eta hauek zeinu moduan atzitutako adimenaren edukiarekin duten erlazioaren ikerketa da. Semantika Rudolf Carnap-ek garatu zuen logika matematikotik abiatuz, eta —zientziaren eta kulturaren beste zenbait arlotan aplikatutako antzeko printzipioak jarraituz— azalpen-sistema metodiko bat osatzen du.

Pintura semantikoa deitutakoaren bidez, bere motibazio plastikoak zeinu sinboliko bidez eraikitzen dituen korrante artistiko liriko-abstraktu bat adierazi nahi da, zeinu horiek eduki mental eta sentikor jakin baten giltzarri bezala erabiltzen dituen. Ordezkaririk nagusienak Werner Schreib eta Luciano Lattanzi izan ziren.

serigrafia: Inprimaketa laueko prozedura bat da, eta grabatu, kartel, gardenki eta elementu apaingarri eta bitxiak egiteko erabiltzen da. Inpresio-prozedura honetan sare-begi fineko bahe bat erabiltzen da, sare hori argizariarekin edo lakarekin estaliz koadroak inolako kolorerik gabe joan behar duen lekuetan. Altzairuzko xafla elastiko eta lerrozuzen batekin —arraspaderarekin— kolorea bahearen gainean zabaltzen da, eta bahean zehar pasaratzen da irekitako zatien tartetik, inprimatu beharreko gainazala hartzen duen arte. Bahe fin horrek kolorea ondo pasatzen uzten duenez, tinta gainazalean ezinobeto banatzea lortzen da, gainazal hori paper, oihal, kristal, metal edo abar dela ere.

sezession: (ikus modernismoa)

simplicissimus: Municheko astekari kultural bat da, 1896an sortu zen eta garrantzi handia izan zuen *Jugendstil* mugimendua (modernismoa) zabaltzeko garaian.

sinbolismoa: Zientziak eta aurrerapen teknikoak lortutako guztiarekin sinkronia betean, XIX. mendeko bulkada artistikoak errealtatea sublimatzeko bidetik abiatu ziren; horren punturik gorenena erreialismo objektiboan mamitu zen literaturan, eta inpresionismoan pinturan. 1885. urtetik aurrera, aldi berean garatu zen literaturan eta arte plastikoetan kontrako mugimendu bat ere, sinbolismoa deitu zena. Arrazionalismo estetikoarekin kontrajarriz, mugimendu sinbolista honetako joera desberdinak benetako gauza errealak atzitzen saiatzen dira arima-egoeretan eta emozioetan, angustia, fantasia eta amets subjektibotik gauzatzen direnak. Sinbolismoak ezin izan zuen estilo konkretu bat garatu, eta ez da erraza gertatzen berau modu orokor eta balidoan

definitzea ere. "Ni"aren kontzientziarekin, artistaren eta konbentzionalismo sozialaren artean leize bat sortuz, artista hori indibidualtasunaren isolamendutik askatu zuen XIX. mende bukaerako eraldaketa zakarreko egoera haren suzedaneo bat da. Sinbolismoa, azken finean —modernismoa bezalaxe—, expresionismora sartzeko bide bat da. Ezaugarriarik markatuenak eta ugariak literaturako sinbolismoan ematen dira (Verlaine, Mallarmé, Rimbaud); arte plastikoetan hauek izan ziren nagusiki sinbolismoaren ordezkariak: Burne-Jones, Dante Gabriel Rossetti eta Millais prerrafaelista ingelesak, Redon eta Puvis de Chavannes Frantziar, eta baita *nabiat* ere (Bonnard, Vuillard, Roussel, Sérusier eta Maurice Denis), hauek, izan ere, 1888an pintura inpresionistaren kontrako jarrera hartu eta erabaki baitzuten imaginaziozko koadroak egitea, argia eta xumeak, poema sinbolisten ilustrazioak eta arabesko apaingarrien tankerako koadroak. Espresionismoaren aurrekari garrantzitsu eta ordezkari nagusi bezala James Ensor belgiarra eta Edvard Munch norvegiarra aipatu behar dira; atentzioa deitzen digu hauek ere nolako lotura ideologiko berezia duten sinbolismo literarioarekin (Nietzsche, Hugo von Hofmannsthal, Rilke, Stefan George-rekin).

sinestesia: Hainbat sentimenezko inpresio aldi berean aplikatzea da, alegia halako kolore jakin batzuen ikusmena beste hots jakin batzuen entzumenarekin erlazioatuz ematea, eta alderantziz ere bai.

slapstick-comedy: *Slapstick-comedy* terminoak (hitzez hitz hartuta "katxiporra eroen komedia") lehenengo filme komikoetako jostailu festalari-grotesko edo satiriko-klowneskoa adierazten du, eta bere interprete nagusien artean Buster Keaton eta Charlie Chaplin aurkitzen dira. Satira-modu komiko hau independentzatu egin zen baliabide estilistiko bezala, eta burlazko exagerazioa adierazteko kontzeptu bihurtu zen. *Slapstick* honen sorburua estu-estuan erlazioatuz behar da garai bereko erreprezentazio-modu dadaista eta surrealista satirikoekin. ■